


ezagutzen al duzu Donostia?

Mirabarkera

Altzako *Mirabarkera* (*Miamarka* betidanik jatorki altzatar eta pasaitarrentzat) baserri-etxe polit bat zen, gaur pareta zahar triste batzuk izan arren. Bere izenak garbi adierazten duenez, «barkerak» begiratzen dituen etxea da. «Barkak», txanelak, txalupak, batelak begiratzen zituen *Miamarkak*. Batelak andere pasaitar prestuek arraunean erabiltzen zituzten. Nork daki *Miamarkako* andereak batelera ote ziren!

Victor Hugo idazle erromantiko handi hura gure batelarekin maiteminduta gelditu zen. Hark idatzi zuen: «Pasaian, gizona itsas-ontzian anderea batelean. Gizona itsasoan, anderea badian gelditzen da. Gizona arrantzara joaten da eta badiatik kanpo ateratzen da, anderea berriz, badian gelditzen da eta bere batelarekin bidaiariak pasatzen ditu alde batetik bestera». Horixe hain xuxen!: *Miamarkaren* azpian bere kaitxoak zuten gure andere xarmenta haiek eta kaitxiki honetatik San Pedro aldera edo Donibanera pasatzen zituzten bidaiariak, arraunean noski.

Urteen poderioz gure Pasaiko badia portu handi bat biluratu zen eta gure *Miamarkari* errepidea egin zioten antzinako kaitxiki haren gainetik, urteetara Norteko trenbidea... ondo-



ren «Topoa»... gero kai berri handiak egin zituzten eta gure etxe polit hura han gelditu zen bere inguru guztia suntsituta bere betiko irtenbidea

mozturik. Cupidagatik edo, «Topo»aren entresak bertan geltoki txiki bat jarri zuen: alperrik! zeren gure *Miamarka* maitea bere ikusmira kendu-

ta, penaz, betiko erori zen eta hortaz «Topo»ak bere geltokia ere kendu zuen.

JOSU TELLABIDE

ARGAZKIAK: ROXALI FERNANDEZ